



Esp.zk. SUBV_CON_COMPET/2025/18

2025eko HEGOALDEKO TOKI-ERAKUNDEEN DEIALDIA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak honako jardute-ildo hauek ditu oinarri:

a) Sentsibilizazio-jarduerak finantzatzea beste batzuekin batera, betiere hegoaldeko herrialdeen egoera, egoera horren zio eragileak eta egoera horretan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak ardatz hartuta.

b) Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeek (GGKE) garapenaren alde eginiko proiektuak finantzatzea beste batzuekin batera, bi helbururekin: hegoaldearen garapenaren alde aritzea eta udalerriko elkarte solidarioen sarea sendotzea.

c) Larrialdietako jarduketa humanitarioetan laguntzea.

d) Udalaren zuzeneko inplikazioa hegoaldeko toki-erakundeekin, lankidetzak proiektuetan.

e) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) sortu duen Lankidetzako Tokiko Funtsean parte hartzea.

f) Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan eta gure hirian lanean ari diren GGKEekin jardutea, parte hartuz eta informazioa emanez.

2025. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da hegoaldeko herrialdeetan giza garapenerako programak egiteko laguntza ematea. Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetzak) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat: hegoaldeko herrialdeetako toki-erakundeekin tokian tokiko garapenaren aldeko lankidetzak proiektuak egiteko egiteko laguntza-deialdia. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen helburua da proiektuak beste batzuekin batera finantzatzea, horretarako dirulaguntzak emanez, proiektu horiek garapen bidean dauden herrietan gauzatzeko. Proiektuek tokian tokiko giza-garapena sustatzera bideraturik egon behar dute hezkuntzaren, prestakuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, giza eskubideen defentsaren,



garapen ekonomikoaren edo hiri nahiz landa komunitateei onura ekartzen ahal dieten azpiegituren arloetan.

Komunitate hartzaileek eta beren ordezkariak (eta nolanahi ere, herrialde hartzaileetako toki-erakundeak edo udalak) aktiboki hartu behar dute parte, diruz lagundu beharreko proiektuak proposatu, kudeatu eta gauzatzeko. Aipatutako proiektuak herrialde hartzaileko gizarte-erakundeek edo toki-erakundeek egingen dituzte erabat.

Aurkeztutako proiektuak tokiko erakunde onuradunen Udalaren Garapen Planetan txertatuta egon behar dute. Dena den, esku-hartzeko lerroen artean sartu behar dute tokiko erakunde hartzaileen udal-indartzeari laguntzea.

Honako hauek hartuko dira garapen bidean edo trantsizioan dauden herrialde edo lurraldetzat, eta, hortaz, Deialdi honetan funtsak jasotzen ahal dituzte: ELGAko Garapenaren aldeko Batzordeak Garapenaren aldeko Laguntza Ofiziala jasotzen ahal duten herrialde onuradunen indarreko zerrendan sartu dituenak.

Deialdi honetara aurkezten ahalko dira honako modalitate hauetan txertatutako proiektuak:

*** A modalitatea: Proiektu BERRIAK.**

Deialdi honetara 2025. urtean lehen aldiz aurkeztutako proiektuak dira.

*** B Modalitatea: JARRAITUTASUN-proiektuak.**

Aurreko urteetan deialdi honetara aurkeztutako proiektuak dira, exekuzioa hasi eta diruz lagundu direnak, eta haien jarraipena aurkezten da 2025ean.

Deialdi honetan diruz laguntzen ahal diren proiektuetako lehentasuneko arloak honako hauek dira:

a) Oinarrizko beharrak asetzea:

-Oinarrizko azpiegiturak egiteko tokiko proiektuak: Oinarrizko Hezkuntza; oinarrizko osasuna; populazioa eta ugalketa-osasuna; etab.

- Edateko uraren zikloaren kudeaketarekin zerikusia duten tokiko proiektuak (biltzea, hornitzea, banatzea, saneamendua eta tratatzea)

- Etxebizitza eta bizigarritasun duinaren aldeko proiektuak (etxebizitzak egiteko programa komunitarioak sustatzea).

- Gizarte zerbitzuen tokiko proiektuak zaurgarrienei arreta emateko.

b) Hegoaldeko Udalei gaitasun tekniko-politikoak sortzeko laguntza:

- Tokiko ekonomia garatzeko proiektuak.

- Lurraldea ordenatzeko edo garapena planifikatzeko tokiko proiektuak.

- Tokiko erakundeak indartzeko proiektuak.

c) Gizarte zibilaren parte hartzea indartzea. Giza-eskubideak babestea eta errespetatzea.

d) Ingurumenaren kalitatea babestea eta hobetzea, zentzuzko zainketa eta biodibertsitatearen erabilera arrazoizkoa eta jasangarria.

2. Deialdiaren helburua:

Hegoaldeko toki-erakundeek giza garapen jasangarriaren alde egitea, eta horretarako gauzatu nahi diren proiektuek herrien autogestioa eta autosufizientzia sustatu behar dituzte, baita Udalen partaidetza aktiboa ere.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Proiektuek edo jarduketek honako baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko:

a) Deialdi honetan adierazten diren printzipio eta lehentasunekiko egokiak izatea.

b) Proiektuak Marko Logikoaren Ikuspegian oinarrituta identifikatu eta formulatu behar dira, edo,



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

bestela, beste metodologia normalizatu batean, non argi eta garbi eta modu antolatutako batean zehaztuko baitira esku-hartzearen helburuak, espero diren emaitzak eta proiektua gauzatzeko behar diren jarduerak eta baliabideak.

c) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzeaz arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.

d) Proiektuaren gaineko ezagutza zabala duela frogatzea eta tokiko kidearekin edo komunitate hartzailearekin diruz lagundutako ekintzaren jarraipena egiteko zer nolako harremanak ezarriko diren azaltzea.

e) Botikak emateko edo horiek eskura jartzeko jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak eta Osasunaren Munduko Erakundeak botikak emateko ezarritako jarraibideei lotu beharko zaizkie.

f) Proiektua jarduketaren xede den Udalaren Garapen Plangintzaren parte izatea, edo, bestela, Udalaren konpromisoa aurkeztea, dirulaguntza jasoz gero, hura lau hilabeteren epean Plangintzan txertatzeko, entitate eskatzaileari dirulaguntza ematearen gaineko jakinarazpena egiten denetik aitzina kontatuta.

g) Proiektuari lotutako sentsibilizazio-jardueraren/jardueren proposamen bat proiektuan sartzea, zeina Iruñean eginen baita.

h) Proiektuaren xede den Udalak aktiboki parte-hartzea.

i) Deialdi honen kargura diruz lagunduko den epea urtebetekoa izanen da.

A modalitatean aurkezten diren proiektuen kasuan (Proiektu Berriak):

a) Deialdi honetako oinarriak betetzeko, nahiz eta urtebeteko epeari dagokion eskaera, epe ertain eta luzerako eraginak lortzeko diseinatutako dira proiektuak, eta, beraz, jarraitasun-programazioa izan beharko dute hurrengo bi urteetarako (urtebeteko fase independenteetan banaturik). Ildo horretan, eboluzio-proiektuak izanen dira (ezin izanen dira urteroko kopia gisa diseinatu hiru urteetan zehar): zehaztutako maila desberdina izanen dute esku-hartzearen urte bakoitzerako, eta urtero emaitzak ezberdinak izatea bilatuko da. Edozein kasutan, lehen urteari dagokion proiektua xeheki azalduta aurkeztuko da, eta egin beharreko jarduketak bakoitza argi eta garbi garatuta. Hurrengo bi urteetarako, eginen diren jarduketak aurrerapen ahalik eta zehatzena egin beharko da.

Hori ezertan galarazi gabe, jarraipeneko ekitaldiko dirulaguntza eskatzeko unean, une horretan jarraipeneko epe horri dagozkion jarduketak garatzea edo, kasuan kasu, eguneratzea.

Halaber, B modalitatean (Jarraitutasun-proiektuak) aurkezten diren proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Finantzaketa jaso izana hegoaldeko herrialdeetako toki-erakundeekin garapenaren aldeko lankidetzak proiektuak gauzatzeko Iruñeko Udalaren 2024ko dirulaguntzen deialdian, eta aipatu Deialdiaren Oinarrietan eskatutako justifikazio-baldintzak egunean izatea (2025eko irailaren 1ean justifikaturik edukitzea 2024an jasotako finantzaketaren % 50, gutxienez).

b) 2025ean jardunean aritzea eta 2025ean aipatutako proiektuarekin jarraitzeko proposamen bat aurkeztea.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEN ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 180.000 €
Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

Deialdi honi esleitutako gehieneko aurrekontu-kontsignazioa honako modalitate hauetan banatuko da eta honako zenbateko hauek izanen ditu:

- A modalitatea: 60.000 €

- B modalitatea: 120.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/23930/490000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: : Onuradun bakoitzari ematen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

ahal zaion banakako muntak ezin izanen du gainditu aurkeztutako proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 90, eta bakoitzak gehienez ere 60.000 € jasoko ditu.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	180.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erregistroan izena emanda izatea eskabideak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratua izatea.

b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

c) Ageriko helburu gisa izatea, haien estatutuetan edo aurreko urteetako memorietan jasoa, garapenaren aldeko lankidetzarekin eta herrien arteko elkartasuna sustatzearekin zerikusia duten jarduerak gauzatzea.

d) Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra. Nolanahi ere, onuradunak izaten ahal dira baldintza hau bete ez, baina jarduera gehiena Iruñean eta bertako herritarrekin garatzen duten entitateak eta hirian aktiboak direnak, lankidetzako edo laguntza humanitarioko programen kudeaketari edo hegoaldeko herrialdeen egoerarekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa sustatzeari dagokienez. Horretarako, Iruñean azken bi urteetan egindako jarduerak dokumentatu beharko dituzte.

e) Bazkide bat (kontraparte) izatea proiektua eginen den eskualdean. Kide hori Administrazio Publiko bat izan daiteke, edo GGKE bat, barne harturik eskaera egiten duen GGKEak herrialde hartzailean duen ordezkaritza.

f) Halako egitura edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.

g) Deialdi honetan edo Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren besteren batean aurretik dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki deialditik kanpo geratuko dira.

n) Hiru urteko eskarmentua, gutxienez, egiaztatzea garapenaren aldeko lankidetzako proiektuen kudeaketan.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

i) Gutxienez sei proiektu egoki kudeatu izana dirulaguntza publikoen kargura, eta horietako hiru gutxienez herrialde hartzailean.

j) Aurrez egiaztatutako eskarmentua izatea proiektuaren hartzaile den herrialdean, gutxienez bi urtez.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Enpresak eta irabazi-asmoa duen beste edozein entitate.
- Azken hamabi hilabeteotan Iruñean jardun ez duten GGKEak, deialdi honetara eskaera noiz aurkeztu eta data hori kontuan hartuta. Hau da, Iruñean, epe horretan, sentsibilizazioaren, laguntza humanitarioaren edo lankidetzaren esparruetan jendaurreko jarduerarik egiaztatzen duen agiririk aurkeztzen ez duten elkarte oro; ez dira jardueratzat hartuko hedabideetan noiz edo noizko agertze hutsa edo horietan artikulua edo elkarrizketak argitaratu izana, edo entitate eskatzailearen barneko jarduerak (prestakuntza, hedapena, etab)

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a) Eskabidean adierazitakoarekin bat proiektuari hasiera eman beharko diote, gehienez ere, dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean, salbu eta aparteko edo ezinbesteko inguruabarrek hala egitea galarazten badute, edonola ere, inguruabar horiek justifikatuta egon beharko dute eta dirulaguntza kudeatzen duen unitateak baimena eman beharko du.

b) Organo emailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, diruz lagundutako jarduera egin dela eta dirulaguntza zertarako den eta helburu hori bete dela, horretarako aurkeztuta P) apartatuan adierazitako erdibideko zein amaierako jarraipen- eta justifikazio-txostenak.

c) Iruñeko Udaleri jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean GGKE eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.

d) Proiektu bat aldatzeko eskaera aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, oinarri hauen F) apartatuan adierazitakoaren arabera.

e) Behar bezalako publizitatea egiteaz gain, jakitera emateko Iruñeko Udalak finantzatu duela proiektua, (E) apartatu honetan jasotako hedapen-neurriak hartu beharko dituzte eta Iruñeko Udalarekin elkarlanean jardun beharko dute proiektuaren garapenaren berri emateko iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera, garapenaren aldeko lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez.

f) Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren kargura egiten diren material-, ekipamendu- eta



hornidura-erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean egin beharko dira, eta bertako produktuekin. Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, deialdi honen unitate kudeatzaileari, hau da, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari.

g) Jasotako funtsek sortzen dituzten finantza-etekinak edo interesak erabiltzea bakarrik diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari lotutako zuzeneko gastuak ordaintzeko. Kasu horretan, onuradunak banku-agiriaren bidez egiaztatu beharko ditu etekin horiek, eta justifikazio ekonomikoan adierazi beharko du zer kontzepturi egotzi dizkion.

h) Jasotako funtsak itzultzea, hala deialdi honen Q) letran nola Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

i) Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta urteko kontuak –organo emailearen eskura egonen dira, eta organo horrek eskatzen ahalko ditu dirulaguntzaren onuradun suertatuz gero–.

Gainera, A Modalitatean (proiektu berriak):

i) Behin ebazpena jakinarazita, dirulaguntzaren berri eman beharko zaio tokiko kideari eta Udal hartzaileari; horiekin Erantzunkidetasun Hitzarmen bat sinatu beharko dute, finantzatuko den lankidetzaprograma garatzeko. Hitzarmen hori Udal Erregistro bidez helaraziko zaio Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaprogramari, gehienez ere hiru hilabeteko epean, dirulaguntza noiz kobratu eta ordutik aitzina kontatuta.

B modalitatean (jarraitutasun-proiektuak):

j) Hasierako lankidetzahitzarmenaren jarraipena justifikatzen duen agiria.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrearen 29.4 artikuluekin bat: ☒ BAI ☐ EZ

Xede-epea: GGKEak edo entitate onuradunak dirulaguntzaren xede den helburuetarako erabili beharko ditu ondasun horiek, gutxienez zazpi urteko epean, erregistro publikoan erregistratzen ahal diren ondasunen kasuan, eta gutxienez bi urtekoan gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatzen ahal diren ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da inguruabar hori, bai eta



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere; halaber, zehaztasun horiek jasoko dira dagokion erregistro publikoan inskripzioa egitean.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi ez diren inguruabarrek proiektuaren garapena aldatu edo eragozten badute, aldaketak egiten ahalko dira proiektuan, honako arau hauekin bat:

Ebazpena aldatzea edo aurreratutako funtsak itzultzea ekarriko duten funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauei eragiten dietenak: proiektuaren helburuei edo/eta espero diren emaitzei, eta aurrekontuari (eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko % 20tik gorako aldea dutenak) eragiten dietenak.

Proposatutako aldaketen balorazioa B.4 apartatuan ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta egingen da, eta edozein kasutan, proiektua planteatu zen moduan gauzatzea eragozten duten inguruabarren aurreikusezintasuna egiaztatu beharko da, eta, hala badagokio, lortutako dirulaguntza egokitu ahal izanen da.

Funtsezko aldaketak unitate kudeatzaileari jakinarazi beharko zaizkio, eskaera arrazoitua aurkezturik, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen, baloratuak izan ahal izateko, eta, hala behar izatera, aldaketa horiek onesteko eta emakida berriz ere doitzeko.

Esku-hartzea gauzatzean gertatzen ahal diren gainerako gertakariak eta aldaketak alor kudeatzaileari jakinaraziko zaizkio eta dagozkien justifikazio-txostenetan sartuko dira (ikusi P apartatua).

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du, eta eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko eskabidez (aurkezpen telematikorako), interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizuna hartzen duen pertsonak sinaturik, betiere deialdi honen I. eranskinarekin bat. Hurrengo paragrafoan adierazitakoa ezertan galarazi gabe, eskabidearekin batera deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Ez da beharrezkoa izanen deialdi honetako G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2



artikuluarekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste ezein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako dokumentu hauek: entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

- Estatutuak.

- Ziurtagiria, egiaztatuko duena Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren (AECID) Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkarleen Erregistroan izena emana duela.

- Identifikazio Fiskaleko Txartela.

- Entitatearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaporte edo antzekoa)

.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapidean ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua erekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanzen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoan emandakoarekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria hori proiektuak aurkezteko formularioaren arabera aurkeztuko da (V. eranskina). Memoria horren barruan, laburpen-orri bat aurkeztu behar da, proiektuaren alderdi hauek jasota: kokapen geografikoa, proiektuaren testuinguru orokorra, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jarduerak eta tokiko kidearen aurkezpen laburra. Edonola ere, proiektua garatzeko aurreikusi diren gastuen eta sarreraren aurrekontu banakatua aurkeztu beharko da, bai eta entitateak jartzen dituen baliabideak – bereak edo tokikoak–.

g) Tokiko kidearen edo kontrapartearen (herrialde hartzailea) nortasun juridikoa egiaztatzeko honako agiri hauek, direla jatorrizkoak direla kopia ziurtatuak:

g.1) Gizarte-erakundeen kasuan:

- Estatutuak.

- Legezko eraketa egiaztatzeko agiria, proiektuaren onuradun den herrialdeko legeekin bat.

- Legezko helbidea, osorik.

- Entitate eskatzailearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa)

g.2) Udalen kasuan:

- Erakundearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta horren akreditazioa: Alkatea edo antzeko karguduna (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa)

- Izendapen-erabakiaren kopia edo hura egiaztatzeko dokumentu ofiziala.

- Legezko helbidea, osorik.

h) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, banku-entitateari dagokionez aldaketarik izan bada soilik aurkeztu beharko da, erantsitako formularioarekin bat (IV. eranskina).

i) Aurkeztutako proiektuarekin zuzeneko harremana izanen duten GGKEaren pertsonen zerrenda, bertan adierazita bakoitzak proiektuan bete behar dituen eginkizunak (koordinazioa, lan teknikoak...) eta aritu behar duen denbora (lanaldi osoa edo partziala). Baldin eta proiektuaren aurrekontuan atzerriratuen gastuak sartu badira, tokian bertan atzerriratutako langileen zerrenda erantsi beharko da, bertan adierazita bakoitzak bete behar dituen eginkizunak eta zenbat denboraz aritu behar duen.

j) Egiaztagiria, GGKE eskatzaileak Iruñean garapenaren aldeko lankidetzaren esparruan egindako jarduerak ziurtatzeko.

k) Gauzatu beharreko proiektua zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (agiri grafikoak, teknikoak, finantzakoak edo bestelakoak), baldin eta proiektuarekin zuzeneko harremanik badute.

B modalitatean aurkeztzen direnen kasuan (jarraitutasun-proiektuak), agiri guztiak 2025eko ekitaldiari dagokion gauzatze-epeari buruzkoak izanen dira.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

A modalitatean (proiektu berriak) aurkezten diren GGKEek, aurrekoen gain, honako hauek aurkeztu behar dituzte:

l) Entitate eskatzailearen, tokiko kidearen (kontrapartea) eta hartzaile den Udalaren arteko alde aurreko akordioa, proiektua Deialdi honetara aurkezteari buruzkoa eta sinatu beharreko Hitzarmen-ereduari buruzkoa, baldin eta dirulaguntza jasotzen bada, non arautuko baitira proiektua gauzatzean alde bakoitzak izanen dituen esku-hartzea eta ardura, hori guztia proiektuaren proposamenak jasotako urteei dagokienez.

m) Udal onuradunaren ziurtagiria, non egiaztatuko baita indarreko Udalaren Garapen Plangintza bat edo antzekorik badela, zeinean aurkeztutako proiektua sartuko baita, eta bertan adierazita onespenez data eta planaren iraupena. Edo, bestela: idatzizko konpromisoa, non jasoko baita dirulaguntza jasoz gero proiektua Udalaren Garapen Plangintzaren baitan sartuko dela, gehienez ere lau hilabeteko epean entitate onuradunari dirulaguntza ematearen gaineko ebazpena jakinarazten zaionetik aitzina kontatuta. Udalaren Garapen Plan horren kopia bat aurkeztu behar da euskarri informatikoan.

n) Akreditazioa, garapenaren aldeko proiektuen kudeaketan hiru urteko esperientzia eta dirulaguntza publikoen kargura gutxienez sei proiektu kudeatu izana egiaztatzeko (horietako hiru, gutxienez, herrialde hartzailean).

Kudeatutako proiektuen akreditazioa finantzaketa egin duten administrazio publiko finantzatzaileek emandako ebazpenen bidez egin beharko da.

o) Erakunde eskatzaileak proiektuaren xede den herrialdean alde aurretik egindako lanaren akreditazioa.

Erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez ere eskaera bat aurkezten ahalko du.

Ahal dela, formatu digitalean aurkeztu behar da eranskinetan jasota ez dagoen dokumentazio osagarri oro. Dokumentazio osagarri horrek gaurkotua egon behar du eta zuzeneko harremana eduki garatu beharreko proiektuarekin.

Ez dira aurkeztu beharko atal honetako a), g) eta h) letretan zehaztutako agiriak, baldin eta Iruñeko Udalaren eskuetan badaude eta horietan aldaketarik izan ez bada; horrelakoetan, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da, eta bertan adierazi noiz eta zein organotan edo bulegotan aurkeztu ziren edo, halakorik balitz, zeinek eman zituen edo zeinetan dauden jasota. Edozein kasutan, ezin izanen dira bost urte baino gehiago igarota izan dagokien prozedura amaitu zenetik

.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoan egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

175 PUNTU GEHIENEZ ERE

A. Proiektuaren kalitate teknikoa 50 puntu

- A.1. Proiektuaren aurkezpena: inprimaki osoa eta eranskin egokiak.....3 puntu bitarte

- A.2. Informazioa, garatu beharreko proiektuari, horren testuinguruari eta abarri



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

buruz.....	8 puntu bitarte
- A.3. Proiektua identifikatzeko garatutako prozesua.....	3 puntu bitarte
- A.4. Informazioa, proiektua zein sektoretan kokatu eta horren egoerari buruz (testuingurua, baliabideak, azpiegiturak.....)	4 puntu bitarte
- A.5. Koherentzia, ekintzaren justifikazioaren, ezarritako helburuen eta proposatutako jardueren artean (Marko Logikoaren Ikuspegia).....	7 puntu bitarte
- A.6. - Gauzatu beharreko ekintzaren bideragarritasun teknikoa.....	6 puntu bitarte
- A.7. Proiektuari eragiten ahal dioten arriskuen balorazioa.....	2 puntu bitarte
-A.8. Proiektuak ingurumenean eragindako ondorioak kontuan hartzea.....	2 puntu bitarte
- A.9. Proiektuaren jasagarritasuna, behin diruz lagundutako ekintza gauzatuta, eta udalak haren kudeaketan edo mantentzean parte hartzea.....	8 puntu bitarte
- A.10. Proiektuaren jarraipena eta amaierako ebaluazioa.....	4 puntu bitarte
- A.11. Proiektuaren osagarritasuna eskualdean egin diren beste garapen-ekintzekin.....	3 puntu bitarte
B. Proiektuari ekin behar dioten gaitasuna zein horien harremanen kalitatea.....	42 puntu.
- B.1. GGKE eskatzailearen eskarmentua eta kudeatzeko gaitasuna garapenaren aldeko proiektuetan.....	7 puntu bitarte
- B.2. GGKE eskatzailearen eta tokiko Udal/kidearen eskarmentua eta kudeatzeko gaitasuna jardun behar duen sektorean eta eremuan.....	5 puntu bitarte
- B.3. Udalaren Garapen Plana: Proiektuaren garapenaren norainokoa eta hark Plangintzan duen integrazio-maila.....	7 puntu bitarte
- B.4. Aurkeztutako proiektuan udalak duen sendotze- eta inplikazio-maila.....	12 puntu bitarte
- B.5. Garapenaren aldeko lankidetzak proiektuak gauzatzeko aurrez elkarlanean aritu izana GGKE eskatzailea eta Udal hartzailea.....	3 puntu bitarte
- B.6. Eragile ezberdinen eta/edo iparraldeko beste zenbait eragileren parte-hartzea, proiektua aurkeztu eta garatzeko.....	8 puntu bitarte
C. Populazio onuraduna	10 puntu
- C.1. Populazio onuraduna.....	4 puntu bitarte
- C.2. Populazio onuradunari buruz emandako informazioa.....	3 puntu bitarte
- C.3. Onuradunen parte-hartze maila, proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzean.....	3 puntu bitarte
D. Proiektuaren gizarte-helburuak.....	30 puntu
- D.1. Proiektuan generoaren ikuspegia txertatzea eta emakumeen bizi-baldintzak hobetzea eta horien eskubideak eta aukerak sustatzea.....	7 puntu bitarte
- D.2. Giza eskubideak sustatu eta defendatzea.....	3 puntu bitarte
- D.3. - Proiektuak noraino jasotzen duen Eskubideen Ikuspegia (GEI)	4 puntu bitarte
- D.4. Prestakuntza profesionala, batik bat premia duten eta baztertuta dauden sektoreetan.	
- D.5. Komunitatearen edo oinarritzko partaidetza eta antolamendua sustatzea.....	6 puntu bitarte
- D.6. Hegoaldeko tokiko erakundeak eta gizarte zibilak parte hartzeko tokiko erakundeak sustatzea: Garapen-kontseiluak, mahai sektorialak, etab.....	6 puntu bitarte
E. Egokitzapen-maila, deialdi honetan lehentasunez ezarritako sektore eta biztanle-multzoekiko.....	10 puntu
- E.1. Oinarritzko beharrak asetzea.....	4 puntu



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- E.2. Hegoaldeko Udalei gaitasun tekniko-politikoak sortzen laguntzea; Gizarte zibilaren parte-hartzea indartzea.....	4 puntu
- E.3. Ingurumena babestea eta hobetzea.....	2 puntu
F. Aurrekontua.....	15 puntu
- F.1. Egokitzea kofinantzaketa-baldintzetara eta ezarritako mugetara.....	4 puntu bitarte
- F.2. Aurrekontuaren banakatze- eta programazio-maila.....	6 puntu bitarte
- F.3. Finantza-bideragarritasuna (beste kofinantzaketak eta proformako fakturak).....	5 puntu bitarte
G. Tokikoak proiektuarekin identifikatzea eta engaiatzea	12 puntu
- G.1. Iruñeko kolektiboen eta dirulaguntzaren xede den eremuko kolektiboen artean jadanik dauden edo bultzatu nahi diren elkartasun-harremanak, betiere eskaera egiten duen GGKEaren eta tokiko kidearen arteko ohiko harremanetik haratagokoak.....	2 puntu bitarte
- G.2. Sentsibilizazio-jarduerak Iruñean egiteko proposamena, horiek proiektuarekin zuzenean lotuta egonen direlarik horren parte direlako.....	7 puntu bitarte
- G.3. Beste hainbat alderdi: Proiektuaren kudeaketa Iruñean, Iruñeko kolektiboek finantzaketan parte hartzea, proiektuan boluntarioek jardutea, Iruñeko etorkinen taldeek parte hartzea beren jatorrizko tokiei eragiten dieten egoeretan.....	3 puntu bitarte
H. Lankidetzaren deszentralizatuaren kohesioa.....	6 puntu
Jarduketa izatea Udalak (ez deialdi honetan) edo Lankidetzaren Deszentralizatuko beste erakunde batzuek aurreko aldi batean eta toki berean babestutako proiektu baten edo jarduketa-programa baten osagarri.	
* Dirulaguntza jaso ahal izateko, proiektuak gutxienez 115 puntu lortu beharko ditu.	
* Puntuazio hori gainditu duten proiektuen artean honela banatuko dira dirulaguntzak, C apartatuan jasotako aurreikuspenekin bat:	
- A modalitatea_Proiektu berriak: gehieneko puntuazioa lortzen duen proiektua.	
- B modalitatea_Jarraipen-proiektuak: gutxienezko puntuazioa lortu duten proiektu guztiek jasoko dute dirulaguntza.	

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:	
Batzordeburua:	Sustapen Ekonomikoko, Berrikuntzako, Europar Proiektzio, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorreko Zinegotzi Ordezkaria/ Ordezkoa: horrek eskuordetutako beste zinegotzi bat
Batzordekideak:	
1.	Sustapen Ekonomikoko, Berrikuntzako, Europar Proiektzio, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorreko zuzendaria/ Ordezkoa: Alorreko zuzendari teknikoa.
2.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udako Programako teknikaria / Ordezkoa: Alor bereko beste teknikari bat.
3.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udako Programako teknikaria / Ordezkoa: Alor bereko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Idazkaria: Iruñeko Udako Zuzenbidean lizentziaduna/ Udako Aholkularitzako beste zuzenbide-lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:



1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan ezartzen diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 6 hilabete

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntza jasoko duten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoa eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es)

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahaliko dira:

a) Zuzeneko gastutzat joko dira proiektua gauzatzeari zuzenean lotutakoak eta finantzabide direnak proiektuaren helburuak lortzeko. Zuzeneko gastu hauek jasotzen ahaliko dute dirulaguntza:

1. Materialak, hornikuntzak, ekipoak eta ekoizteko bestelako aktiboak erosi eta garraiatzeko gastuak, bai eta langileei eta funtzionamenduari dagozkienak ere, proiektuari zuzenean lotuta badaude.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntza lurra edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzea salbuespenezkoa izanen da, eta, betiere, haien legezko egoerari buruzko txostena egin eta benetan eros daitezkeela frogatzen duen beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Gainera, ondasun horien titulartasuna proiektua gauzatzen den herriko populazioa ordezkatzeko duen komunitate-erakunderen bati egokituko zaio. Azken baldintza horrek eraikin berriak eraikitze proiektuetarako ere balio du.

2. Tokian egindako identifikaziotik eratorritako gastuak, baldin eta horiek Deialdi honetara proiektuak aurkezteko epea amaitu aurreko sei hilabeteen barruan egin badira eta dirulaguntza osoaren % 5 baino gehiago ez badira. Kontzeptu honi egotzen ahal zaizkion gastuak izanen dira honako hauetatik zuzenean eratorritakoak: diagnosiak, identifikazio-lantegiak, alde aurreko ikerketak, etab. (jarduerak eragindako langileria-gastuak eta egonaldiak barne).

3. Atzerriratutako langile kooperantei dagozkien gastuak. Kontzeptu hau dela medio jasotzen ahal den zenbatekoa dirulaguntzaren % 10ekoa da, betiere aurkeztutako eskabidean zehaztuta ezinbestekoa dela horien parte-hartzea, aurkeztutako proiektuan espero diren emaitzak lortuko badira, eta adierazita langile atzerriratuen zerrenda zein horiek proiektuan betetzen dituzten eginkizunak. Atzerriratutako langileen gastutzak joko dira langile horiek eragindako gastuak oro (nominak, bidaiak, ostatu hartzeak, mantenua...)

4. Bidaiak, ostatu hartzeak eta dietak. Langileen eta proiektuaren onuradun diren biztanleen mugikortasunari lotutako gastuak dira, esku-hartzea gauzatzeko beharrezkoak direnak. Kontzeptu horren barruan hauek sartzen dira: erregai-gastuak, aseguruak eta mantentze-gastuak –betiere aurrez esku-hartzearen formulazioan berariaz identifikatuta eta hari lotuta badaude–.

5. Errotazio-funtsak. Kreditu-osagaia duten esku-hartzeen kasuan, errotazio-funtsak ezin izanen du finantzatu diren zuzeneko gastuen % 10 gainditu. Errotazio-funtsen entitate kudeatzaileari galdatzen ahalko zaio kanpoko finantza- eta kontu-ikuskaritzat bat aurkez dezan.

6. Finantza-gastuak, notariotzakoak eta erregistrokoak, eta banku-berme emailekoak diruz lagundu daitezke, dirulaguntzaren xede den jarduerari zuzenean lotuta badaude eta ezinbestekoak badira jarduera hori ongi prestatu edo gauzatzeko, eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.7 artikuluan xedatutakoarekin bat badatoz.

7. Dirulaguntzek estaliko dituzte, zuzeneko gastuen partidaren barruan, Iruñeko udalerrian egindako sensibilizazio- eta hedapen-jarduerari lotutako kostuak, diruz lagundutako garapen-proiektuarekin zerikusia badute eta proiektuaren aurkezpenean egin beharreko jarduerak zehaztu badira, eta horiek ez dira jasotako dirulaguntzaren % 4tik gorakoak izanen. Ez dira apartatu honen barruan sartuko entitate onuradunaren sensibilizazio-jarduera globalak eta hedapenekoak.

8. Gauzatzeko azken urtean dauden proiektuek % 5 bitarte bideratzen ahalko dute hiru urteak biltzen dituen amaierako ebaluaziora.

b) "Zeharkako gastutzat" hartuko dira entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagozkionak eta diruz lagundutako esku-hartzea gauzatzeko euskarri direnak, betiere, zentzuz dagokion partean, oro har onartuak diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak kontuan hartuta:

1. Gastu hori esku-hartzea gauzatzen ari den aldiari egotzi behar zaio, eta entitate onuradunaren Iruñeko egoitzarekin zerikusia eduki. Ez dira diruz lagunduko Iruñean ez dagoen egoitza bati dagozkion zeharkako gastuak.

2. Dirulaguntzari loturiko zeharkako gastuek (administrazio- eta kudeaketa-gastuek) ez dute inolaz ere jasotako dirulaguntzaren % 5 gaindituko.

c) Iruñeko Udalaren dirulaguntzak eragiten dituen finantza-etekinek dirulaguntzaren zenbatekoa handituko dute eta diruz lagundutako proiektuari aplikatuko zaizkio.

d) Iruñeko Udalaren diru-ekarpenaren bidez erositako ondasun guztiak proiektuaren populazio hartzailea ordezkatzeko duen komunitate-erakundearen edo udalaren eskuetan geratzeko dira proiektua amaitzean, eta hark konpromisoa hartuko du ondasun horiek erabiltzeko, zehazki, dirulaguntzaren xede izan diren helburuetarako, gutxienez zazpi urteko epeaz, erregistro publiko batean inskribatzen ahal diren ondasunen kasuan, edo bi urtez, gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatzen ahal



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

diren ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da inguruabar hori, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere; halaber, zehaztasun horiek jasoko dira dagokion erregistro publikoan inskripzioa egitean.

e) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada –obraren exekuzioak eragindako kostuaren kasuan–, edo 12.000 eurotik gorakoa – ekipamendu-ondasunen horniduraren kostuaren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, diruz lagundu daitezkeen gastuen eta/edo herrialdearen ezaugarri bereziengatik, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori behar bezalako baldintzetan eman dezaketen behar adina entitaterik ez bada. Hori gertatuz gero, txosten xehatua egin beharko da salbuespena ziurtatzeko. Txosten hori tokiko kideak egin beharko du, eta entitate onuradunak bermatu. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

f) Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren kargura egiten diren material-, ekipamendu- eta hornidura-erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean edo ingurukoetan egin beharko dira, eta bertako produktuekin. Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, deialdi honen unitate kudeatzaileari, hau da, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: *Proiektua gauzatzen hasten denetik (E. atalaren a) letran zehaztutakoarekin bat) deialdi honen P. atalaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu arte. Salbuespen moduan, proiektua ebaluatzetik eratorritako gastuen kasuan epearen hasiera eta amaiera ez dira kontuan hartuko, L.1 apartatuarekin bat.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoak: % 90

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: % 10 gutxienez.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Kofinantzaketan parte hartzeko kanpoko ekarpen gisa onartuko dira lursail, areto, ekipo, material eta soldatapeko langileen eskulanaren balorizazioak, nagusiki, aurrekontuan sartutako jardueren gauzatzearekin zuzenean loturik dauden onuradunena. Ekarpene horiek kontraparteak egiaztaturik egon beharko dute, eta egiaztapen horretan ekarpena deskribatu eta kuantifikatu beharko da honako hauek adieraziz: unitate-kopurua, lan-orduak, unitate bakoitzaren prezioa (hala badagokio) eta guztizko balorizazioa. Balorizazioak tokiko merkatuaren prezioari egokituko zaizkio.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 100, ordainketa bakarrean eta aurretik ordaintzea.
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, aldez aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeak eratzea:

- ☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa: Dirulaguntza eman aurretik ez da eskatuko bermerako banku-abalik, irabazi-asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak izan eta Garapenaren aldeko Lankidetzarekin zerikusia duten jarduketak humanitarioak egin behar dituztelako; gainera, oinarri hauetan beraietan ezartzen dira dirulaguntzak kontrolatzeko eta justifikatzeko mekanismoak eta jasotako diru-kopuruak itzultzeko aukera.

P. JUSTIFIKAZIOA:



1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa modu telematikoa aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa". Telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, VIII. eranskinarekin bat.

Diruz lagundutako proiektua egitearen onuradun eta arduradun diren GGKEk aurkeztu beharko dituzte proiektuaren garapenaren txosten deskribatzaileak eta finantzarioak (VI. eranskineko formulario ereduarekin bat).

Justifikazio-txostenetan (partzialetan eta amaierako justifikazio-txostenean, oinarri hauetako P.2 apartatuan ezarritakoarekin bat) honako agiri hauek jaso beharko dira:

1. "Txosten narratiboa", informatzen den aldi bakoitzeko jarduketak deskribatzen dituen.

2. "Finantza-txostena", jasotako dirulaguntzari dagokiona. Bertan honako hauek sartu beharko dira:

a) Tokian tokiko bazkideari edo kontraparteari dirulaguntzaren zenbatekoa bidali izanaren egiaztagiria, aplikatutako kanbio-tasa zehaztuta.

b) Ziurtagiri bat, tokiko kidearen edo kontrapartearen legeko ordezkariak sinatua, herrialde onuraduneari dirulaguntza jaso dutela egiaztatzen duena.

c) Egingako jarduketan eta gastuen justifikazio-agiria: Txosten teknikoa eta finantzen gainekoa, proiektuaren gauzatzeari buruz, eta horrekin batera, gutxienez honako agiri hauek:

- Proiektua nola gauzatu den zehatz-mehatz azaltzen duen memoria.

- Egingako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda.

- Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: Fakturak, jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, are nominak ere, tributuak eta Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan balioa edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Aurkezten diren frogagirik honako hauek adierazi beharko dituzte gutxienez: jaulkipen data, jaulkitzailearen izena edo sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa eta kontzeptua eta zenbatekoa ordainketa egin den monetan.

- Jasotzailearen ziurtagiria, proiektuaren xede diren jarduerak finantzatzeko erabilitako Udalaz kanpoko dirulaguntzen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa egiaztatzen dituen, bai eta beste diru-sarrera edo baliabide batzuenak ere.

- Justifikatutako administrazio- eta kudeaketa-gastuak entitate onuradunaren Iruñeko egoitzari egokituko zaizkio, eta ez dira onartuko beste egoitza edo delegaziok kontzeptu horiek direla bide sortutako gastuak.

- Dirulaguntzaren xede izan diren administrazio- eta kudeaketa-gastuak egiaztatzeko, gastu bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta gastuaren eta gauzatutako proiektuaren arteko harremana egiaztatuko da.

- Gastuak Espainian egiten badira, gastuen egiaztagiriak jatorrizkoak izanen dira edo organo kudeatzaileak konpultsatutako kopiak. Beste kasu batzuetan, jatorrizkoak edo fotokopiak aurkezten ahalko dira; azken horiek, entitate onuradunaren legeko ordezkariak emandako kautotasun-ziurtagiriekin batera.

- Egiaztagiriak gaztelania, euskara, ingelesa edo frantsesa ez den beste hizkuntza batean idatzirik badaude, gaztelaniara itzuli beharko dira.

- Beste edozein agiri -idatzizkoa zein grafikoa-, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Organo kudeatzaileak, aurkeztutako agiriak ikusita komenigarritzat jotzen badu, entitate onuradunari eskatzen ahalko dio jatorrizkoak aurkez diezazkiola, 10 egun balioduneko epean eta aurrez aurre, egiaztatzeko kopia soilean aurkeztutako agirien benetakotasuna; organo kudeatzaileak administrazio-espedientean jaso beharko du egiaztapena egin duela eta aurkeztutako kopiak bat datozela jatorrizkoekin.

Desadostasunen bat atzemanaz gero, eta desadostasunak badirau hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero, dirulaguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko galdutako da, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, legez ezar litezkeen zehapenak ere ezarriko dira.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 34.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, berariazko justifikazio-araubide bat ezarri da Nazio Batuetako nazioarteko erakundeendako. Edozein kasutan, horiei beti eskatuko zaie aurkez ditzatela finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiaztagirak eta berariaz dagokien kontabilitate-kontrola, Estatu-parteei Nazio Batuen agentziei ezarritako funtzionamenduarekin bat. Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak erakunde horiei eskatzen ahal die beste edozein agiri entregatzeko, baldin eta egindako gastuaren justifikazio-kontuaren modalitateari badagokio eta Udalak garrantzitsutzat jotzen badu, betiere kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, eta ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza ematean aurreikusitako helburuak lortu direla behar bezala justifikatzeko.

Halaber, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deia egiten ahalko die finantzatutako GGKEei edo entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) klausulan aurreikusitako onuradunen betebeharrak galarazi gabe.

Deialdi honen bitartez dirulaguntza jasotzen duten entitateek orok men egingen diete hala Iruñeko Udalaren eta horrek kontratatutako ikuskaritza- edo ebaluazio-enpresen edo entitateen nola Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiaren egiaztapen-jarduketari. Finantza-kontrola GGKEei edo erakunde onuradunei egingen zaie, eta honako hauek egiaztatzea izanen du helburu: funtsak behar bezala lortu direla, jasotako funtsak aplikatzeko betebeharrak bete direla, dirulaguntza behar bezala justifikatu dela, aurkeztutako justifikazioaren arabera dirulaguntzarekin finantzatu diren eragiketen egiazkotasuna eta legezkotasuna.

Behin dirulaguntza jaso duten GGKEek P.2) klausulan ezarritako epeetan justifikazio-txostenak aurkeztu eta gero, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deialdiaren jarraipenari buruzko amaierako txosten bat egingen du. Amaierako txosten hori, gehienez, sei hilabeteko epean egin beharko da, justifikazioko azken txostena jaso eta hortik aitzina kontatuta, eta bertan jasoko dira hala garatutako jarduketak nola diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagokion justifikazio ekonomikoa. Amaierako jarraipen-txosten hori organo eskudunari bidaliko zaio, hark onets dezan.

- ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.
Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ
☐ Justifikazio-kontu erraztua.

- ☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

a) 2026ko irailaren 1a baino lehen: Txosten partzial bat, egun horretara arte egindako jarduketaren berri emateko eta 2025. urteari dagokion finantzaketaren % 50, gutxienez, justifikatzeko.

b) 2027ko ekainaren 28a baino lehen: 2025eko finantzaketaren amaierako txostena (jarduketak eginda eta emandako dirulaguntzaren % 100 jasota).

Finantzatu beharreko proiektuak garatuko diren gizarte- eta geografia-testuinguruak kontuan hartuta, klausula honetan jasotako justifikazio-epeak egoki betetzea eragozten duten arrazoiak badaude, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatzen ahalko da, baldin eta horrek hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie. Horretarako arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio, idatziz eta dagokion txostena aurkezteko epea amaitu baino 10 egun lehenago, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari, eta horrek balorazio positiboa egin beharko du.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoietako bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1. E) apartatuko f) letran aipatutako erosketak egitea Iruñeko Udalak horretarako baimenik espresuki eta aldez aurretik eman gabe.

2. Ez betetzea deialdi honen E) apartatuan jasotako eginbeharra, zeinaren arabera dirulaguntza zertarako jaso eta zehazki horretarako erabili behar baitira ondasunak.

3. Proiektuan aldaketak egitea, F) letran aipatutakoak, Iruñeko Udalak horretarako baimenik espresuki eta aldez aurretik eman gabe.

4. Entitate onuradunak dirulaguntzaren dagokion partea itzuli beharko du, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu badira eta horren ondorioz Udalak erabakitzen badu dirulaguntzaren zenbatekoak jo behar duela entitateak jasotako dirulaguntzak baino gutxiago. Baldin eta proiektu berarentzat beste zenbait dirulaguntza jasotzeagatik entitate onuradunak jasotzen duen zenbatekoa bada diruz lagundutako jardueraren kostuena baino handiago, Ñ) apartatuan ezarritakoa bete beharko da.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☐ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTEKO ESKABIDEA
V. ERANSKINA. HEGOALDEKO TOKI-ERAKUNDEEKIN GAUZATU BEHARREKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO FORMULARIOA, 2025
VI. ERANSKINA. DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK JUSTIFIKATZEKO FORMULARIOA, 2025
VII. ERANSKINA. AGIRIAK KONTSULTATZEKO BALMENA
VIII. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*